



AEK-ren amaierako hitzaldia
Maidier Heguy, Iparraldeko AEKren presidentea eta
Bixente Claverie, AEKren Artezkaritza kontseiluko kidea
Baionan, 2024ko martxoaren 24an

Gure lehen hitzak ondoan ez ditugun AEKideentzat dira:

JULIO ARANGUENA ARISTI eta BEÑAT ESPIL

Euskararen alde eraman duzuen borrokagatik, GORA ZUEK!!

Agur eta ongi etorri Baionara!

Zuei eta milaka herritarri esker heldu gara honaino. Zuek zarete euskararen herri garra! 11 egunez eta 10 gauez, ibili zareten haur, gazte eta heldu guztiei, AEK-ren esker beroak eta txaloak denentzat !

Irundik harro abiatu zen Korrika, eta eskuz esku, goxoki eta fermuki heldurik, lekukoak bidea egin du Baionaraino, mezua orotara helaraziz, Euskal Herria batuz eta bilduz, milaka jendek kate horretan bat eginez! Harro gara, Korrikak batzen gaituelako. Harro gara euskaldun izateaz, konplexurik gabe. Eta harro diogu, euskaraz bizi nahi dugula.

Harro gara..... baina ez konforme!

Garazik erran digu: hizkuntzak ekosistema osoa behar du eta horretan denok dugu lekua, euskaldunek eta ikasi nahi dutenek, erdaldunek ere, euskarari lekua utziz. Euskarak denak bil gaitzake, euskara ez baita muga, ate bat da.



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



Zenbakiak, urri, errealtate gordina salatzen digute. Jendea ikastera erakarri behar da, aukera eta laguntza eman. Erronka handia dugu! Euskara ikasi nahi dutenentzat, bihar ere, gau eskolak zabalduko ditugu, euskararen geroa ahal bezainbatekin partekatzeke eta eraikitzeke. Alta, helduen euskalduntzearen arloak baliabide eskasak ditu oraino eta ikasleentzako dohakotasuna oraino lortzekoa dugu lurralde guztian.

Euskara ikasi nahi duenak euskaldunok behar gaitu. Gu ere, harro gaitzen, orotara helarazi behar dugu euskara, eta argitan biziarazi. Hitzunok, ordua dugu itzaletik ateratzeko eta ekiteko, bazterretik erdira jiteko eta hitza luzatzeko. Bakoitzari dagokigu ateak zabaltzea eta zabalaraztea, euskararen lekua egitea, hartzea eta sortzea, gure etxeetan, lantokietan, plazetan, eremu publikoetan. Hau da gure herri-bidea eta ekosistema bete behar dugu fierki. Garazik zioen: “*gizartearen arlo oro busti beharko du hizkuntza-politikak*”. Euskara ezin da erabaki soila izan, ez apaingarri hutsa, ez ikur lilluragarria. Euskarak gizartearen gune guztietan egon behar du eta instituzioen hizkuntza izan behar du ere. Instituzioek ardura handia dute: hizkuntza-politika ausarta eta sendoa behar dugu eta ez “*brilli-brillizko bilgarria*”: konpromiso gehiago eta baliabide gehiago ditugu behar, eta orain behar ditugu.

23. Korrikak azterketak euskaraz kolektiboa omendu du, euskara haien aldarria delako, Korrikarena bezala. Oraindik ere, ikasleei azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea ukatzen zaie. Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen segituko dute ikasleek : animo eta txalo beroak haiei! Euskara ez da inposizio bat, eskubide bat da!



Korrika 23 amaitu da eta 24garrena gogoan dugu.
Bainan orain festaren ordua da!
Korrika batzordeetan inplikatu direnei eta festaz gozatzeko lanean diren
AEK-ko ikasle, irakasle eta laguntzaile guztiei, esker beroak !
Pasa egun on bat!

HARRO HERRI !!
Gora Korrika !
Gora AEK!
Gora euskara !